AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4871

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 31koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, 2011rako Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzeko agintzen duen, oinarri orokorrak zein bereziak onartzen dituen eta agentzia horretan lan-kontratuko langile jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egiten duen 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpena aldatzekoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren bidez, 2011rako Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzeko agindu zen, oinarri orokorrak zein bereziak onartu ziren eta agentzia horretan lan-kontratuko langile jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egin zen.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2011ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bidez, hein batean baietsi zen CC.OO. Konfederazio Sindikalak lehen aipatutako 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa. Ebazpen hori betetzeak, besteak beste, errekurtsoaren xede diren hautaketa-prozesuen oinarri orokorrei zein bereziei idazketa berri bat ematea eta prozesu horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epe berri bat ematea dakar.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Idazketa berri bat ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian lan-kontratuko langile jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorrei zein bereziei. Prozesu horiek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren bidez deitu ziren. Idazketa berria I. eranskinean dago jasota.

Bigarren artikulua.– Hogei egun naturaleko epea ematea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko.

Aurretik 2011ko urtarrilaren 10eko ebazpenean ezarritako epean eskabidea egin zutenek ez daukate berriz ere eskabidea aurkeztu beharrik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Ebazpenaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke

zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 31.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

I. ERANSKINA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAN LAN-KONTRATUKO LANGILE JARDUNGO DUTEN 9 LANGILERENTZAKO LANPOSTUAK BETETZEKO HAUTAPROBEN OINARRI OROKORRAK

1.– Helburua.

Oinarri hauen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko ondoko plaza hauek oposizio-lehiaketa bidez betetzeko arauak ezartzea:

– Plangintza eta ebaluazioko arduradun plaza 1.

– Koordinazio teknikoko arduradun plaza 1.

– Garapenerako lankidetzako teknikarien 6 plaza.

– Genero-berdintasuneko teknikarien plaza 1.

2.– Kontratatzeko baldintza orokorrak.

2.1.– Hautatutako pertsonek lan-kontratu finkoa sinatuko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, eta arlo horretan indarrean dauden xedapenek ezarritako eskubide eta betebehar guztiak edukiko dituzte.

2.2.– Lanpostuaz jabetzen diren egunean alta emango zaie Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, eta bertan afiliatuko, lehenagotik ez bazeuden.

2.3.– Baldintzaren bat ezarrita duten lanpostuak betetzeko, izangaiek nahitaez egiaztatu beharko dute baldintza hori.

2.4.– Epaimahaiak ezingo ditu hautatu deitutako lanpostuak baino izangai gehiago. Muga hori gainditzen duten proposamenak erabat deusez izango dira.

Dena den, eskaintzen ziren lanpostuak adina izangai kontratatzea proposatu badute hautaketa-organoek, eta, hautatutakoren batek bere plazari uko egiten badio, halakoetan, lanpostuak beteko direla ziurtatzeko, deialdia egin duen organoak hautaketaz arduratzen den organoari proposatutakoen ondoren datozen beste izangai batzuen zerrenda ere eskatu ahal izango dio, beharrezkoa balitz, lan-kontratu finkodun moduan kontratatu ahal izateko.

3.– Izangaien baldintzak.

3.1.– Izangaiek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte hurrengo puntuan zehaztutako baldintzak, eta baldintzok betetzen jarraitu beharko dute lan-kontratua formalizatu arte.

3.2.– Hona hemen oposizio-lehiaketa honetako hautaprobetarako onartzeko baldintzak:

a) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez

badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Plaza baterako hautatuek kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena eduki beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen.

b) Hamasei (16) urteak beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.

c) Eskatzen den titulazioa edukitzea, edo hura jasotzeko eskubideak ordainduta edukitzea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen.

d) Lan edo kargu publikoak betetzeko erabat edo bereziki ezgaituta ez egotea, eta edozein administrazio publikotako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita edo kaleratuta ez egotea. Beste estatu bateko herritartasuna izanez gero, ezgaituta edo antzeko egoeran ez egotea eta beraren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten duen diziplinazko zigorrik edo baliokiderik ez jaso izana.

e) Indarrean dagoen araubidearen arabera, desgaitasun edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sarturik ez izatea; bateraezintasunen kasuan, hala ere, ez da eragozpen izango interesdunak aukera egin dezan.

f) Ordainduta izatea lehiatu nahi den plazari dagokion eskabidea jasotzearen eta azterketa egitearen tasa. Tasa horren zenbatekoa 4.3 oinarrian zehazten da.

g) Lanpostuari dagozkion eginkizunak normal betetzea eragozten duen gaixotasunik edo ezintasun fisikorik edo psikikorik ez izatea. Gaitasun fisikoa eta psikikoa hautaketa-prozesua gainditutakoan egiaztatu beharko dira. Horretarako, medikuaren ziurtagiri edota azterketa-agiria ekarri beharko da, betiere 9.1.1.e) oinarrian xedatutakoaren arabera. Baldintza hau betetzea ezinbestekoa izango da lanpostuaz jabetu ahal izateko.

h) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein baldintza.

4.– Eskabideak aurkeztea.

Aurretik (Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendariak 2010eko urtarrilaren 10eko Ebazpenez deitutako deialdiaren barruan) eskabidea egin zutenek ez daukate berriz ere eskabidea aurkeztu beharrik. Aurreko deialdia 2011ko urtarrilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 13. zenbakianean.

4.1.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Deialdian parte hartzeko eskabideak hogei (20) egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin ahal izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: www.ivap.euskadi.net.

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net.

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

a) Gasteizen: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

b) Bilbon: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

c) Donostian: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); San Bartolome kalea, 28; PK: 20007.

d) Oñatin: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); unibertsitate zaharra; PK: 20560.

Jendeari arreta emateko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:00 – 14:00.

Gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkez daitezke eskabideak.

Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jar diezaien.

4.2.– Eskabidearen edukia eta ondorioak.

4.2.1.– Lehiaketarako onartua izateko eta, hala bada, hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskabideko atal guztiak bete behar dituzte eta tasak ordaindu. Plaza bakoitzeko eskabide bat bete beharko da. Eskatzen diren baldintza guztiak esandako epearen amaiera-egunerako betetzen dituztela adierazi behar dute, salbuespen honekin: euskararen ezaguera dela-eta 7.3 eta 7.6 oinarrietan ezarritakoa aplikatuko da.

Tasak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaintzen ez badira, izangaia prozesutik kanpo geratuko da, hain zuzen ere, oinarri hauetako 3.2.f) paragrafoan ezarritako baldintza ez betetzeagatik.

Aurrekoa gorabehera, ordaindutako zenbatekoan akatsen bat egonez gero, izangaiari errekerimendua bidaliko zaio akatsa hamar egun baliodun igaro baino lehen zuzentzeko.

Izangaiek, beraz, onartuak izateko, honakoak adierazi beharko dituzte eskabidean, dagokion atalean:

a) Prozesua zuzen kudeatzeko norberari buruz eskatzen diren datuak.

b) Zein plazatarako lehiatu nahi duen.

c) Zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen oposizio-faseko ariketak: euskaraz edo gaztelaniaz.

d) Urritasunen bat dutenek horren berri eman behar dute eskabidean. Gainera, hautaprobetan parte hartzeko egokitzapen teknikoak egin behar direla uste badute, eskabidean bertan zehaztu behar dituzte.

e) Alegatutako titulazioa.

4.2.2.– Eskabidearekin batera, deialdi bakoitzeko berariazko betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa eta lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduei buruzkoa aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori eskaneatu eta bidaltzeko aukera dago, eskabidea Internet bidez eginez gero, edo, bestela, IVAPen bulegoetan aurkeztu ahal izango da.

4.2.3.– Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen titulartasuneko fitxategi batean), eta fitxategi hori hautapen-prozesua kudeatzeko eta behin-behineko langileak kontratatzeko sortuko diren lan-poltsak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoan, esaten dena beteko dute fitxategi horiek erabiltzeko orduan.

4.3.– Eskabideak aurkezteagatiko tasak ordaintzea:

Deialdiko 3.2.g) oinarriak ezarritako baldintza betetzeko, tasa eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu behar da. Bi aukera daude:

a) Off-line ordainketa: aurrean adierazitako finantza-erakunde laguntzailearen bulego batera joan eta sistemak sortutako jaso-agiria aurkeztu behar da, edo bertan agertzen diren datuak. Jaso-agiriek barra-kodea dutenez gero, irakurgailu optikoa duen kutxazain automatikoaren bidez edo eskuzko datu-eskuratzearen bidez egin daiteke.

a) On-line ordainketa: ordainketa banka elektronikoaren sistemaren bidez egin daiteke, banku-sukurtsal batera joan gabe. Horretarako, aurreko erakundeko banka elektronikoaren bezeroa izan behar da. Modalitate hau eguneko 24 orduetan erabil daiteke: honi esker ez dago alferrikako joan-etorrietan ibili beharrik ez ilaretan zain egon beharrik.

Hona tasen zenbatekoa:

Lanpostua	Eurotan
Plangintza eta ebaluazioaren arduraduna	20,34
Koordinazio teknikoaren arduraduna	20,34
Garapenerako lankidetzako teknikaria	20,34
Genero berdintasuneko teknikaria	20,34

Tasa ordaintzen ez bada, edo okerreko zenbatekoa ordaintzen bada, oinarri hauetako 4.2 paragrafoan zehaztutako ondorioak sortuko dira. Nolanahi ere, tasa ordaintzea eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; izan ere, eskabidea oso-osorik eta behar den epearen barruan (4.1. oinarria) aurkeztu behar da.

5.– Kalifikazio epaimahaia.

5.1.– Osaera:

Mahaiburua: Txabier Anuzita.

Batzordekideak:

Itziar Hernandez Zubizarreta.

Mertxe Digon Arizmendi.

Aitor Gabilondo Harina.

Mirella Azpiau Diez.

Marta Iglesias Barrio.

Ordezkoak:

Epaimahaiburua: Koldo Unceta.

Epaimahaikideak:

Mikel Mancisidor.

Gloria Guzman Orellana.

Ana Maria Arriola Palomares.

María Isabel Aramburu.

Imanol Uriguen Garaizabal.

5-2.– Parte ez hartzea eta errefusatzea:

Epaimahaiko kideren bat Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan bildutako kasuetako batean bada, ezin izango du prozesuan parte hartu eta deialdia egin duen agintaritzari jakinarazi beharko dio. Gauza bera gertatuko zaie deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartuko duen izangairen bat prestatzen jardun dutenei ere.

Aurreko kasuetakoren bat gertatzen denean ere, interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere, aipatutako legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat.

5.3.– Jarduteko arauak:

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27.era bitartean zehaztutako arauetara egokitu beharko da epaimahaiaren jarduna. Epaimahaiburuak aginduta eta idazkariak deialdia eginda, epaimahaiak bilera egingo du hautaprobak hasi baino nahikoa denbora lehenago. Epaimahaia legez eratzeko, ezinbestekoa da ondokoak bertaratzea: epaimahaiburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta kideen erdia gutxienez.

Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak. Berdinketa gertatzen bada, lehendakariaren botoak egingo du alde batera edo bestera. Idazkariak hitza eta botoa izango ditu.

Epaimahaiburuaren edo beraren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo bestelako legezko kausaren bat gertatzen bada, epaimahaikide batek jardungo du haren ordez, hurrenkera honetan: hierarkian gorengo maila duenak, antzinatasun handiena duenak eta adinez zaharrenak.

Idazkari titularraren edo beraren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko kausaren bat gertatzen bada, epaimahaikide batek jardungo du haren ordez, hain zuzen ere, gehiengoaren erabakiaren bidez hautatutakoak.

5.4.– Ahalmenak:

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta beraren ardura izango dira prozesua legezkotasunez burutzea eta objektibitatea eta inpartzialtasuna bermatzea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, epaimahaiak, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko

diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai-burutzak behar diren neurriak hartuko ditu oposizio-faseko ariketen edukia isilpean edukitzeko, eta gauza bera egingo du azterketak zuzentzean azterketa bakoitza norena den ez jakiteko.

5.5.– Egoitza:

● Jakinarazpenetarako eta halako beste gauzetarako, Epaimahaiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan izango du helbidea: Nafarroa kalea 2; 01007 Vitoria-Gasteiz.

5.6.– Zerbitzuagatiko kalte-ordainak:

Epaimahaikideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bai eta bertaratzeagatik ere, arlo honetako indarreko arautegiarekin bat etorriz.

6.– Izangaiak onartzea eta prozesua hastea.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak deialdian parte hartzeko jaso diren eskabideak aztertuko ditu, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda egingo du.

Zerrenda hori egin eta gero, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzeko aginduko du. Baztertuen kasuan, baztertzeko zein arrazoi izan diren agertuko da. Ebazpena jendaurrean jarriko da: oinarrietako 4.1 paragrafoan zehaztutako bulegoetako iragarki-oholetan eta Agentziaren eta IVAPen web orrietan.

Prozesutik kanpo geratzen direnek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute, bai eta egindako hutsak zuzentzeko ere, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik egutegiko hamar eguneko epearen barruan.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta erreklamazioak ebatzita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda oinarrietako 4.1 paragrafoan zehaztutako bulegoetako iragarki-oholetan eta Agentziaren eta IVAPen web orrietan argitaratzeko aginduko du.

Hautaprobak egiteko aukera prozesurako onartutako izangaiek izango dute, bai eta baztertuta egon arren egintzan gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela eta hura ebatzi gabe dagoela frogatzen dutenek ere.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpenean, halaber, lehenengo ariketa non, noiz eta zein ordutan izango den zehaztuko da.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean deialdi bat bakarrik egingo zaie kategoria bakoitzean lehiatzen diren izangaiei. Izangai bakoitzak, nork bere burua identifikatzeko, nortasun-agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko du probetara.

Epaimahaiek ariketen iraupena eta haiek egiteko baliabideak egokituko dizkiete egokitzapenak behar eta eskabidean hala eskatu duten izangai desgaituei, gainerako parte-hartzaileek adinako aukera izan dezaten. Nolanahi ere, egokitzapenak inolaz ere ezin du desitxuratu probaren edukia, ez eta eskatzen den gaitasun-maila murriztu ere.

7.– Hautatzeko prozedura.

7.1.– Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa izango da, berariazko oinarrietan ezartzen denaren arabera.

7.2.– Oposizio-fasea:

Bi proba izango ditu oposizio-faseak, oinarri espezifikoetan adieraziko diren horiexek.

Administrazioaren jardunak bete behar dituen efikazia eta efizientzia printzipioak betetzeko, oposizio-faseko probak egun bakarrean egitea erabaki dezake epaimahaiak. Hori eginez gero, garaiz jakinarazi beharko die izangaiei.

3.– Euskara.

Euskara-proba hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko egingo da, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den kasuetan nahiz merezimendutzat hartutako kasuetan, baldin eta izangaiak ezin badu euskararen ezagutza agiri bidez egiaztatu.

7.4.– Lehiaketa-fasea:

7.4.1.– Lehiaketa-fasea izangaiek adierazitako eta ziurtatutako merezimenduak aztertu eta balioetsita ebatziko da. Merezimenduak berak eta merezimenduak baloratzeko baremoa, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan daude zehaztuta.

7.4.2.– Ezin izango dira balioetsi, ezein kasutan, eskabideak aurkezteko epearen barruan behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak.

7.5.– Lehiaketa-fasean ez da inor baztertuko, eta bertan lortzen diren puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio-faseko probak gainditzeko.

7.5.– Merezimenduak eta betekizunak egiaztatzea.

7.5.1.– Adierazten diren merezimenduak izateko erreferentzia-data eskaerak aurkezteko epearen amaiera-data izango da, euskararen kasuan izan ezik.

7.5.2.– Gainerako herri administrazioetan lanean egindako denbora, berriz, administrazio bakoitzak berariaz prestatutako ereduan adierazi behar da. Nolanahi ere, lan-denboraldiak bereizita adierazi behar dira, eta ondoko datuak zehaztu: lanpostuaren kidegoa, eskala, azpieskala eta mota edo kategoria, eta bertan izandako eginkizunak eta dedikazio-araubidea.

7.5.3.– Herri-administrazioetatik kanpoko lan-esperientzia frogatzeko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Gizarte Segurantzaren kotizazioaren ziurtagiria; ziurtagiri honetan berariaz zehaztu behar da alegatutako lanbide-kategoria.

b) Enpresaren ziurtagiria edo lan-kontratuaren kopia, postuaren monografia, edo beste agiri batzuk, betetako funtzioak modu frogagarrian egiaztatzeko.

7.5.4.– Titulu ofizialak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia bera edo titulua eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

7.5.5.– Hizkuntzen tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia bera edo titulua eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

7.5.6.– Argitalpenak eta ikerketa-lanak lan horien kopia arrunt bidez egiaztatuko dira.

7.6.– Euskara gaitasuna egiaztatzea.

7.6.1.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunaren erregistroan titular agertzen diren izangaiek ez dute hizkuntza-eskakizuna ez alegatu ez egiaztatu beharrik.

7.6.2.– IVAP ez den beste erakunderen baten euskara-gaitasunaren ziurtagiri edo tituluak dituztenek, deialdi honetako gaitasun-probak saihestu nahi badituzte, ziurtagiri horietakoren bat eduki badutela adierazi beharko dute hautaprobetan parte hartzeko eskarian eta berariaz baimena eman IVAPi dagozkion erregistroetan sartzeko, alegatutakoa benetakoa dela egiaztatzeko.

Baldin eta parte-hartzeko eskarian ez bazaio baimen hori IVAPi espresuki ematen, izangaiak berak egiaztatu beharko du dena delako ziurtagiria edo titulua badaukala, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunaren idatzizko proba egin aurretik.

7.6.3.– Euskararen gaitasunari buruzko tituluak eta egiaztagiriak baliozkotzeko, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena) ezarritakoa aplikatuko da.

7.6.4.– Egiaztagiri horiek, deialdiko oinarri zehatzetan euskara egiaztatzeko proba idatzia egiteko jarritako eguna baino lehenago lortutakoak izan behar dute.

7.7.– Hizkuntzak egiaztatzea.

7.7.1.– Hizkuntzen tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia bera edo titulua eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

7.7.2.– Adierazten diren merezimenduak eskuratzeko erreferentzia-data eskaerak aurkezteko epearen amaiera-data izango da.

7.8.– Azken kalifikazioa.

7.8.1.– Izangaien azken kalifikazioa kalkulatzeko, lehiaketa-fasean eta oposizio-fasean lortutako puntuak batuko dira.

7.8.2.– Oposizio-lehiaketako emaitza eta kalifikazio guztiak jendaurrean jarriko dira: oinarrietako 4.1 paragrafoan zehaztutako bulegoetako iragarki-oholetan eta Agentziaren eta IVAPen web orrietan.

7.8.3.– Berdinketarik gertatuz gero, ondoko irizpide hauek erabiliz ezarriko da hurrenkera:

1) Oposizio-aldian puntuaziorik handiena lortu duena.

2) Bigarren proban puntuaziorik handiena lortu duena.

3) Lehiaketa-aldiko atal bakoitzean puntu gehien lortu duena, oinarri berezietan adierazitako hurrenkeraren arabera.

8.– Probak gainditutakoetatik hautatu diren langileak. Lanpostuen adjudikazioa.

8.1.– Prozesuko azken kalifikazioak jarrita daudenean, Epaimahaiak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren ebazpenaren bidez, kalifikazioaren behin-behineko zerrenda argitaratuko du oinarrietako 4.1 paragrafoan adierazitako bulegoetako iragarki-tauletan, eta bai Aegntziaren eta IVApen wek-orrian ere.

Behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera interesdunek hamar (10) egun naturaleko epea edukiko dute bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkezteko.

8.2.– Erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean, aurkeztutakoez ebatzi ostean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak gainditu eta hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

9.– Dokumentazioa aurkeztea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren ebazpen baten bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da, eta bertan hogei (20) egun naturaleko epea emango zaie izangaiei ondoren adieraziko diren dokumentuak aurkezteko.

9.1.– Eskatutako dokumentuak.

9.1.1.– Hautatutakoen behin betiko zerrendan proposatzen diren izangaiek ondoko dokumentu hauek ekarri beharko dituzte deialdian eskatutako gaitasun-baldintzak eta gainerako betekizunak betetzen dituztela frogatzeko:

a) NANaren fotokopia.

b) Atzerriko izangaiek Administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute eta bertan adieraziko zaie zein dokumentu ekarri behar dituzten nahitaez, beren egoera kontuan hartuta.

c) Deialdian parte hartzeko eskatzen diren tituluen eta betekizunak betetzen direla frogatzen duten agirien fotokopia konpultsatuak. Titulu eta frogagiri horiek oinarri zehatzetan jasotakoak dira.

d) Zinpeko adierazpena edo agintza, honakoa adierazteko: ez dagoela inhabilitatuta eginkizun publikoetan aritzeko, ez duela inork inoiz diziplina-espediente bidez bereizi ez iraitzi herri-administrazio baten zerbitzutik, eta ez dagoela herri-administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta.

Espainiako naziotasuna ez duten izangaiek, bestalde, zinpeko aitorpena edo agintza egin beharko dute esanez ez dutela jaso beren estatuan funtzio publikoan jardutea galarazten duen diziplina-zehapenik edo kondena penalik.

e) Medikuaren ziurtagiria, ondokoa frogatzen duena: oinarri hauek eta deialdiaren oinarri espezifikoek zehazten duten bezala, interesdunak ez daukala lanpostuaren eginkizunetan aritzea eragozten duen gaixotasunik ez urritasun fisikorik.

f) Lehiaketa-aldian adierazi diren merezimenduen jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatuak.

9.1.2.– Oinarri honetako aurreko puntuen arabera aurkezten diren dokumentuak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan behar dira. Kopia konpultsatuak baliozkoak izango badira, datu hauek agertu behar dituzte: data, eta konpultsa egin duenaren izen-abizenak, NAN eta sinadura irakurtzeko modukoa.

9.1.3.– Izangai batek aurreko dokumentu guztiak aurkeztu ezin baditu (ezintasuna behar bezala frogatu behar du), Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabili ahal izango du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela frogatzeko.

9.2.– Dokumentuak non eta noiz aurkeztu.

● Hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hautatutakoek hogei (20) egun naturaleko epea edukiko dute aurrean aipatutako dokumentu guztiak aurkezteko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Nafarroa kalea 2; 01007 Vitoria-Gasteiz).

9.3.– Agiriren bat ez aurkeztea.

Adierazitako epearen barruan dokumentuak aurkezten ez dituztenak, ezinbesteko kasua gertatu ezean, ezin izango dira kontratatu, eta gauza bera gertatuko zaie aurkeztutako dokumentuen arabera hirugarren oinarrian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenei eta lanpostuaren eginkizunetan aritzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa ez dutenei ere. Kasu hauetako bat gertatuz gero, egindako jarduketa guztiak deuseztatuko dira, eta gainera baliteke izangaiak erantzukizuna izatea eskabidea faltsutzeagatik.

Horrelakoetan, epaimahaiak hurrengo izangaia kontratatzeko proposamena egingo du, hau da, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeran hurrengoa dena. Horretarako, aurreko paragrafoko inguruabarren eraginez bete gabe geratu diren plaza beste izangai hautatuko ditu epaimahaiak.

10.– Kontratazioa.

Behin dokumentuak aurkezteko epea amaitu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren ebazpena, aurreko oinarrietan ezarritakoa bete duten izangai hautatuen zerrenda eta guzti, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatzeko.

Hautatutako izangaiek hamabost (15) egun naturaleko epea izango dute lan-kontratua sinatzeko, izendapen-agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan lanpostuaz jabetzen ez direnek, non eta ez den halabeharragatik, galdu egingo dituzte Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lan-kontratuko langile finko izateko eskubide guztiak, deialdiaren ondoriozkoak. Horrelakoetan, epaimahaiak hurrengo izangaia kontratatzeko proposamena egingo du, hau da, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeran hurrengoa dena. Horretarako, bete gabe geratu diren plaza adina izangai hautatuko ditu epaimahaiak.

11.– Probaldia.

Lan-kontratuetan sei (6) hilabeteko probaldia jarriko da lanpostu guztietarako, eta epaimahai kalifikatzaileak baloratzeko hautaproba izango da hori ere.

Probaldian kontratatuen gaitasun edo alderdi hauek ebaluatuko dira: produktibitatea, kalitatea, eraginkortasuna (ahaleginak), harremanetarako gaitasuna, eta lidergoa.

Ebaluazioak fase hauek edukiko ditu:

a) Izangaiei ebaluazio-neurriak eta aplikatuko diren metodoa eta irizpideak jakinaraziko zaizkie.

b) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak kontratutako izangaiari buruzko azken txostena idatziko du.

c) Epaimahaiak txosten hori baloratuko du. Epaimahaiko kide bakoitzak 0 – 10 bitarteko puntuazioa emango dio txostenari, eta batez beste 5 puntu edo gehiago lortzen dituztenak lanposturako gai izango dira.

d) Gutxieneko puntuazioa lortzen ez dutenek ez dute gaindituko probaldia.

Hautatuetako batek probaldia gainditzen ez badu, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeran hurrengoa den izangaia kontratatzeko proposamena egingo du. Horretarako, bete gabe geratu diren plaza adina izangai hautatuko ditu epaimahaiak.

Probaldia gainditu ondoren izangaia lan-kontratuko langile finko bihurtuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren plantillan.

12.– Lan-poltsak osatzea.

Hautaketa-prozesu bakoitza amaitzen denean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aldi batean zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erregulazio propioa ez duen bitartean, deitutako lanpostu bakoitzeko lan-poltsa osatu eta argitaratuko da, hain zuzen, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakian zehaztuta dagoen moduan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erabakian).

13.– Deialdiaren aurka egitea.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien zein epaimahaien jardunaren ondoriozko administrazio-egintza guztien aurka egin dezakete. Aurka egitea eta horretarako bideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean daude zehaztuta.

II. ERANSKINA

Plaza 1 Plangintza eta ebaluazioko arduraduna.

1.– Plazaren ezaugarriak:

– Postua: Plangintza eta ebaluazioko arduraduna.

2.– Xedea eta zereginak.

2.1.– Xedea:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren planifikazio- eta ebaluazio-estrategiak diseinatu, definitu, koordinatu eta gauzatzea. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bestelako erakunde publikoekin dituen harremanak garatu eta koordinatzea, eta dibulgazio- eta sentsibilizazio-ekintzak ere garatu eta koordinatzea.

2.2– Zeregin nagusiak:

● Planifikazio estrategiarako estrategiak diseinatu.

● Ebaluazio-prozesuen jarraipena eta koordinazioa egin.

● Elkarlanean aritzen diren agenteekin erakundeek dituzten harremanak koordinatu.

● Agentziaren dibulgazio- eta komunikazio-ekintzak koordinatu.

● Planifikazio- eta ebaluazio-prozesuetan genero ikuspegia ondo sartu dela eta ondo betetzen dela begiratu.

● Zuzendaritza Batzorderako txosten teknikoak prestatu.

● Kontseilu Errektoreari, Elkarlanerako Euskal Kontseiluari eta Erakundearteko Kontseiluari aholku eman.

● Agentziaren zuzendaritzak erabakitzen duen beste edozein zeregin.

3.– Deialdian parte hartzeko baldintzak:

3.1.– Titulazioa: Lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura eta graduko titulazioa.

3.2.– Euskara: 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigorra.

4.– Hautatzeko prozedura.

Hautaketa-prozedura oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasean ondorengo ariketak egin beharko dira:

a) Lehenengo proba: 1. zatia. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Hautagaiek azterketa teorikoa egin beharko dute. Epaimahaiak prestatuko du proba, erantsitako ikasgai-zerrendaren gainean. Idatzizkoa izango da proba, eta gai-zerrendako zenbait gairi buruzko galderei erantzun beharko diete hautagaiek. Gehienez, 4 puntu lor daitezke, eta gutxienez, 2 puntu lortu behar dira proba gainditzeko.

b) Lehenengo proba: 2. zatia. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Postuaren zereginekin edo ikasgai-zerrendako gairen batekin lotutako kasu teoriko-praktiko bati erantzun beharko diote hautagaiek. Gehienez, 6 puntu lor daitezke, eta gutxienez, 3 puntu lortu behar dira proba gainditzeko.

